

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA

3752

EBAZPENA, 2013ko uztailaren 30ekoa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzen berri ematen duena.

2013ko ekainaren 4ean argitaratu zen EHAA 2013ko maiatzaren 28ko Agindua, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Agindu honen 13.1 artikulua dioenez, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordeak hartutako Ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei jakinarazpen indibidualizaturik egingo ez zaienik.

Horiek horrela izanda, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2013ko maiatzaren 28ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta baita horien guztien onuradunak argitara ematea. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2013ko uztailaren 30a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
JOSE ANGEL MARIA MUÑOZ OTAEGI.

ERANSKINA

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ANTZOKIETAN EGOITZA-PROIEKTUETARAKO
LAGUNTZAK

2013. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko antzokietan egoitza-proiektuetarako diru-laguntza eman zaien zerrenda.

Eskatzailea	Diru-laguntza jaso dezakeen ekintza	Diru-laguntza
Astarloa kulturgintza	Ganso & Cía konpainiaren egoitza programa	16.998
Ayuntamiento de Zigoitia-Zigoitiko udala	Panta Rhei konpainiaren egoitza programa	16.109
Zornotzako kultura eta euskara zerbitzua	Markeliñe konpainiaren egoitza programa	21.565
Ayuntamiento de Urnieta- Urnietako udala	Aukeran konpainiaren egoitza programa	5.328